

# Deskribapena

Gu Iker Simon, Aimar Labaka, Galder Viegas eta Andoni Garrido gara, Oiartzo Ikastolako ikasleak. Gure proiektua lantzen hasi baina lehen, denbora bat egon ginen gaur egungo gizartean zer arazo dauden eta zer behar ditugun aztertzen. Eta, hausnarketa honen ondoren, ondorio hau atera genuen: gaur egungo gizartean, bidaiatzen duten pertsonak, oztopo ugari aurkitzen dituztela bidean, eta erosotasun falta nabaria dagoela hauteman genuen. Horregatik, alor honekin lotutako enpresa sortzea erabaki genuen.

Gure enpresa ideia garatzeko eta errealitatera egokitzeko, CANVAS ereduari oinarritu gara, eta honi esker enpresa bat aurrera eramateko bete behar diren pausoak jarraitzeko gai izan gara. Hasteko, balorezko proposamena egin genuen, bertan, zer behar edo arazo konponduko ditugun azaldu genuen, eta besteengandik bereizten gaituena ere aipatu genuen. Jarraian, merkatuaren segmentazioa egin genuen, gure bezeroa zein eta nolakoa izango den zehaztuz. Ondoren, funtsezko elkarrekin azaldu genituen, hau da, gure proiektuak funtziona dezan, gure bazkide eta hornitzaile nagusiak zeintzuk izango diren zehaztu genuen. Gero, diru-iturriak aztertu genituen, gure produktuaren prezioa zehazteko. Horren ondoren, gure zerbitzuak bezeroengana iristeko modua zehaztu genuen kanalen atalean. Gero, gure bezeroarekiko harremanak nolakoak izango diren erabaki genuen, hau da, nola erakarriko ditugun bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko ditugun bezero horiek. Jarraian, gure produktuaren estrategia finkatu genuen, horretarako, enpresaren funtsezko jarduerak zehaztu genituen. Eta azkenik, gure kostuen egiturak zehaztu genituen, hau da, gure proiektuaren kostu garrantzitsuenak zeintzuk izango diren azaldu genuen. Modu honetan, gure enpresa ideia gorpuztu genuen; hots, "Flyroom" martxan jartzea lortu genuen.